



## ZABOR UGARI BILDU DUTE **BERASTEGIARREK**

Aldin Kultur Elkarreak antolatuta inguruko mendiak garbitzen aritu ziren larunbatean, eskolako haurren laguntzaz >6

**TOLOSALDEKO  
ETA LEITZALDEKO**

# hitza



**Asteartea**  
**2010-04-27**

VIII. URTEA 1985. ZENBAKIA  
ESKUALDEKO EGUNKARIA

[WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO](http://WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO)

**EDURNE PASABAN** MENDIZALEA

## «Erabatekoa izan da Annapurnako espedizioa; lana ongi egin dugu»

**TOLOSA** Shisha Pangmako oinarritzko kanpaleku txinatarrean zeuden atzo espediziokideak

**EZTABAIDA** Pasabaneke argi du Eun-Sun mendizale korearra eta bere taldekideak «gezurretan ari direla» 2-3



Jende asko bildu zen herenegun Adunan Gorostidi Harriaren IV. Txapelketa ikusteko. SARA GOMEZ

## MINUTU BATEKO ISILUNEA MENDIZABAL ZENAREN OMENEZ


**ADUNA** Aizkolaria izan zuten gogoan herenegun Gorostidi Harriaren IV. Txapelketan; Iñaki Gorostidiren markak bere horretan dirau 5

## Helegiterik ezean epaia bere horretan geldituko da

**'EGUNKARIA AUZIA'** AVTk eta Dignidad y Justiziak absuluzioa onartuko omen dute 7

## 50 lagun bildu ziren Loatzoko Igoera-Jaitsieran

**AMASA** Hassanek eta Ibarbiak irabazi zuten XVIII. edizioa; lau bakarrik izan ziren neskek 5



Aitziber Ibarbiak irabazi zuen herenegun Amasan izandako lehiaketa. HITZA

E **Elkarrizketa****EDURNE PASABAN** › Mendizalea

AL FILO DE LO IMPOSIBLE-TV

# «Zama arindu dut Annapurnan»

**Tolosa** » Annapurnatik Shisha Pangmarako bidean, mendiaren beheko kanpalekuan daude Edurne Pasaban, Alex Txikon eta Asier Izagirre.

## EKAITZ AGIRRE (BERRIA)

Annapurnako (8.091) beheko kanpalekua utzi, eta Katmandun dira egunotan *Al filo de lo imposible* espedizioa kideak. Annapurnan gora ongi egindako lanaren emaitzaz gozatzeko, atsedena hartu eta indarberritzen. Denbora gutxirako, ordea, Shisha Pangman (8.027) jarriarik dituzte begiak eta burua. Pasa den larunbatean abiatu ziren Tibet aldera, eta herenegun iritsi ziren mendiaren beheko kanpale-

kura. Atzo, oinarritzeko kanpaleku txinatarrera (5.200) ailegatu ziren, baina bihar arte itxaron beharko dute oinarritzeko kanpaleku aurre-ratua deritzonera iristeko, yak animaliekin izandako arazoak direla eta. Shisha Pangma igota osa dezake Edurne Pasabanek (Tolosa, 1973) hamalau zortzimilakoen bilduma, eta akaso hori lortzen lehenengo emakumea izan daiteke. Annapurnatik jaitsi eta Shisharako trantsizioan, Katmanduko kale

jendetsu eta zaratsuetatik erantzun zituen galderak.

**Menditik mendirako jauzian, zertan aritu zarete Katmandun?**

Pentsa daitekeena baino gauza

**«Erabatekoa izan da Annapurnako espedizioa; mendian lana ongi egin dugu»**

gehiago dugu egiteko. Annapurnan erabilitako materiala jaso dugu, eta hura garbitzen ari gara, Shisha Pangmaraz zer eraman eta zer ez erabakitzen, baimenen in-

guru hainbat tramite osatzen, eta atsedena hartzen; ongi jaten eta hidratatzen, batez ere. Miss Hawleyri bisita ere egin genion -Nepaleko zortzimilakoetako notarioa da, igoera bati onarpena ematen diona-.

**Zer moduz harekin? Annapurna igo izanari onarpena eman al dio?**

Asko zahartu da azken urteetan, 90 urteak gertu ditu, baina burutik oso ongi dago. Igoeraren inguruko datu eta azalpen guztiak eman dizkiogu, argazkiak erakutsi, haren galderei erantzun... Galdera dezentente egin dizkigu, zorrotzak, eta igoera osoaren datu eta erreferentziak eskatu: kanpalekuak non ja-

ri ditugun, zer garaieratan, tontorretik zer ikusten den, nolakoa den gailurra... Azkenerako, sinetsi beharko digula esan digu.

**Euskal Herrietik abiatu zineten**

**«Plangintza aldeketa ongi atera zaigu; martxoan eguraldi oso ona egin dugu»**

**egunean erabat aldatu zitzaizkizuen asmoak, Txinako agintariak Tibetean sartzeko jarritako debekua zela tarteko, eta, Shisha Pangmaraz beharrean, Annapurnara joan zarete aurrera. Aldaketa, ordea, onerako izan da, eguraldiari eta mendiaren baldintzei erreparatuta, ezta?**

Ezin hobeto atera zaizkiguzaguzak, zalantzarik gabe. Asmoak erabakita daudenean, azken orduko aldaketek kezka eragiten dute, baina guzuzak bide onetik joan zaizkigu. Bakarrik izan ginen hainbat astez Annapurnan, eta mendian gora lan handia egin behar izan dugu soka finkatzen. Martxoan eguraldi oso ona egin du, eta funtsezkoa izan da garaierara azkar egokitu eta apirilarekin batera tontorrerako saioari ekiteko. Eguraldi oneko lehen leihorekin igo dugu Anna-

## Iragarki laburrak

### LANESKAITZA


■ **Ile-apaintzailea.** Ibarra 1000 ileapaindegi batek laguntzaile behar du. Harremanetarako idatzi [metxa2@yahoo.es](mailto:metxa2@yahoo.es) helbidera edota deitu 609-79 27 87 telefono zenbakira.

■ **Mutil gaztea.** Mutil euskalduna behar da lanerako, 25-30 urte bitartekoa. Deitu 13:00etatik

15:00etara 649-51 09 41 telefono zenbakira.

### AURKITUAKOIA

■ **Perikitoa.** Gorputz berdea eta urdina eta burua laranja duen perikitoa edo loritoa aurkitu dugu Ibarra. Inork berreskuratu nahi badu 609-47 30 81 telefono zenbakira deitu dezala mesedez.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

purna, ez dago gehiago eskatzerik. **Errespetu handia diozue mendizaleek Annapurnari; arrisksutsua izatearen sona du, eta igoera gutxi ditu. Pentsatzen dut garrantzi handia emango diozuela espediziokide guztiek igo izanari.**

Beldurra guztiok genion Annapurnari, eta nik zalantza asko nituen nola moldatuko ote nintzen. Behin beheko kanpalekura iritsita, Annapurnan soilik pentsatu dugu, Shisha Pangma bazterrean utzita. Alexek (Txikon), Asierrek (Izagirre), Nachok (Orviz) eta laurok igo dugu, eta gurekin batera etorritako sherpek ere bai. Zama handia kendu dut gainetik Annapurna igota.

**Zuek ireki duzue bidea, arrastoa zabaldu eta soka finkatu. Gustura egindako lanarekin?**

Hitz batean laburtze aldera, erabatekoa izan da espedizioa. Garaz joateak espedizio osoa izatera behartu gaitu, mendian gora lana erruz egitera. Adibidez, bi mila metro soka finkatu ditugu mendian. Aurrez Shisha Pangmara joan izan bagina, Annapurnara iritsi eta bidea irekita aurkituko genukeen.

**Nolakoa izan zen gailurrerako azken igoera?**

Aurreikusitakoa baino luzeagoa, tontorrera eramaten duen azken korridoreagatik, batez ere. Bi or-

duren bueltan gaindituko genuela aurreikusi eta lau ordu behar izan genituen; izoztuta zegoen, oso gogorra, eta mantso igo genuen. Jaitsiera ere falta genuen, gainera, eta jaitsierak komeriak ditu; soka gutxi geratzen zitzaigun eta tentu handiz jaitsi ginen, estropezu txiki batek ere maldan behera erortzeko arriskua zekarrelako.

**Annapurna igota, bakarra falta duzu orain hamalau zortzimilakoren bidean: Shisha Pangma. Altuerari erreparatu gero, mendi xumea da; 8.027 metroekin zortzimilakorik baxuena. Zuretzat, ordea, bosgarren saioa izango da bertan. Horrek psikologikoki eraginik ba al du?**

Mendi zailagoak lehenengo saioan igo ditut, eta Shisharekin ezin. Baina garbi daukat zergatik ez nuen igo aurrekoetan: eguraldiagatik, batzuetan, eta egoera pertso-

**«Garaierara egokituta goaz Shisha Pangmara, eta han erabakiko dugu nondik saiatu»**

nalak zirela tarteko, besteetan. Oraingoan mendiaren iparraldeko aurpegitik goaz -aurreko lau saioak hego-mendebaldeko hor-

matik egin zituzten-, eta ea ongi ateratzen den.

**Tontorrera igozkeo liaki Otxoa de Olzak 2006an irekitako aldaera erabiliko al duzue azkenean?**

Erabakitzeke dugu, eta han bertan ikusiko dugu nondik saiatu, baldintzen arabera. Himalayan negua lehorra izan da, eta beste urte batzuetan baino elur gutxiago dago mendian. Iniakik irekitako aldaera aproposagoa dela diote batzuek, tontor nagusira zuzenean igotzen delako, azken ertza saihestuz. Baina, akaso, ertza bera aurreratu baino baldintza txukunagoetan egon daiteke.

**Garaierara egokituta zaudete, eta, horri esker, saio azkar bat egin ahal izango duzue. Aurreikuspenik egin al duzue?**

Behoko kanpalekutik bigarrenera igo, han deposito bat utzi eta gaua pasatu, eta behoko kanpalekura jaitsiko gara, bigarren saio batean tontorrera igotzen saiatzeko. Hori da logikoa. Maiatzaren lehenengo hamabostaldian behar luke, beranduenera jota.

**Otxoa de Olza aipatuta, Annapurnan harekin akordatu zarete. Inakirekin harreman berezia izan nuen, eta Annapurnan gogoan izan dugu, bai. Guretzako mendi berezia izan denez, hari eskaini nahi izan diogu igoera.**



Edurne Pasaban Annapurna atzean duela. AL FILO DE LO IMPOSIBLE-TVE

## «Zirkua? Akaso bai, baina garbi dugu gezurretan ari direla»

E.A.

Susmoak aurretik ere bazituztela dio Edurne Pasabanek, baina Annapurnatik behoko kanpalekura jaitsitakoan ezbaian jarri du Eunsun korearrak iazko udaberrian Kangchenjunga igo izana.

**Behoko kanpalekura iritsitakoan adierazpen gogorak egin zenuen Miss Ho korearren inguruan, iaz Kangchenjunga ez zuela igo baieztatzeraino.**

Iazko udaberrian Kangchenjunga igo ote zuen zalantzak genituen. Aurkeztu zuten argazkia ez da tontorraren ateratakoa, eta irudian baziren zalantza eragin ziguten beste hainbat kontu -Ferran Latorrek bere webgunean bildu ditu-. Iaz protesta egin genuen, baina ezin izan genuen inondik inora frogatu. Egunotan korearrekin Annapurnan dauden sherpek esan digute ez zirela Kangchenjunga igo, eguraldi txarragatik, baina ezin dutela halakorik esan lanean korearrekin ari direlako. Sherpa haiekin harreman estua dugu, Asier Izagirrek eskalada ikastaroak eman zizkielako.

**Zentzurik ba al du hala ibiltzeak?** Annapurna igo genuen egunean korearrak zorrotz ibili ziren gure igoera zaintzen, eta Carlos Pauneri eta Juanito Oiarzabali galde-

tzen zieten ea gu ote ginen goikoak, ea ni nintzen tontorrean azaltzen zena. Jarrera horrek sutu egin gaitu.

**Ez al duzue mendia zirkua eta ikusizun huts bihurtu?**

Akaso bai, baina guk garbi dugu haiek ez dutela egia esan, eta zirkua haiek dutela gertatua behoko kanpalekuan. Bost milioi euroko aurrekontua dute, 54 denda jarri dituzte Annapurnan, Koreako teledibistako 36 langile eraman dituzte, zuzenean zortzi orduko teledibista saioa eskaini nahi dute...

**Annapurnan dauden espedizioak orain zertan dira?**

Asteburura begira eguraldi oneko leiho bat omen dator, eta hori baliatu nahi dutenek hasiak behar dute mendian gora. Baina ez dakit korearek zer asmo duten, zortzi ordurako satellite seinalea maizterako baitute erositia. Dena dela, aurreratu dezakete igoera.

**Lehenengo izate horri zer garrantzi ematen diozu?**

Miss Hok du aukera handiena aurreneko izateko. Kontua danik jakin badakidala hamahiru zortzimilako igoak ditudala; hark ere egia baldin badio eta igoak baditu, bada zorionak eta aurrera. Baina egia ez bada, orduan min egingo lidake.



Edurne Pasaban eta gainontzeko espediziokideak Annapurna aurrean. AL FILO DE LO IMPOSIBLE-TVE

bertako egunkaria  
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Asteunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:

Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa  
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N A :
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	

Ki Emaitzak

Table with 2 columns: Event Name and Results/Points. Includes events like PILOTA, BEGOSAN-OARTZUN, USURIK-ALEGIA, etc.

Table with 2 columns: Event Name and Results/Points. Includes events like TOLOSA CF-Bergara KE, SALKAPENA, TOLESA CF (51p.), etc.

Ibarra FS taldeak 3-0 irabazi dio Soloarteri, ikusle gutxiak partidara batean


Areto futbolan Garaipen berri honetan Lauburu KEk bigarren postua berreskuratu du National A Mailan.

Bigarren postuan Itaske gaurtik aldiarte ziren Belabietan, aurkarik inoiz irabazi gabeko kanban. Larunbeteko emaitzak ikusita, bihurtzeko hiru puntuak lortu gero National A Mailako bigarren postua berreskuratuko zuten.

Laskorainek 4-7 irabazi dio Ceramic Nagales Zarautzen

Laskorainek Ceramic Nagalesen aurka 4-7 irabazi du Zarautzen. Goleak Markos Landa eta Joseba Irujoek sartu zituzten.

Markos Landa eta Joseba Irujoek bi golak sartu zituzten. Goleak sartu ondoren, Laskorainek bere hurrengo golak sartu zituzten.




Telleria III.a 150 kiloko hartarkein, USA GOMEZ

Gorostidi hariaren aurrean omdendu dute Mendizabal II.a

Mendizabal II.aren omenez antolatuta zuten aurten Gorostidi Hariaren IV. Txapelketa. Gaurak horrela, berriro ere, omenaldi berria egin zuten azkolari hilberriari adun.

Harrijoztallean txanda Bi mullatan banatu zituzten harrijoztallean Adunan. 80 kiloko beltza eta muga hori gainditzen zutenak. Pisu arinen artean Telleria II.a izan zen onena, 150 ki-



50 lagunek igo eta jaitzi dute Loatz

50 lagunek igo eta jaitzi dute Loatz

Amasa Hassanek eta Altzer Ibarbiki irabazi zuten herenegun XVIII. Loatzoko Igera-Jaltsiera. 50 korrikalarik hartu zuten parte proban.



3. kategorian bi bartar nagusi

Bi SASKIBALOI BIZKAIARRAK hiruak ikusitaren aldeko proba jokatuz ziren iragan larunbatean. Maila nagusian Vilariñotarrek izan ziren garaiak.

Advertisement for 'TOLOSA HITZA' featuring 'harpidedun izateak badu saria' and various prizes like 'Liburua', 'Diskoa', 'Antzerkia', and 'Kontzertua'.

Advertisement for 'Pilotazale, eman hauek pilotazale, etorkizuneko pilotari...' with a list of prizes and contact information.

Advertisement for 'berria' featuring 'Kazetaritza praktikak egiteko bekadunak' and 'PROBAKO EGUNAK ETA TOKIAK'.

## Laburrak

### Maiatzaren 1ean mendi irteera Alpino Uzturretik

**TOLOSA** » Alpino Uzturre Elkarteak, maiatzaren 1erako mendi irteera antolatuta du. Ibilaldia, Gaintzan hasi eta Lizarrusti mendatean bukatuko da. Tartean, Irumugarrieta (1.431 metro) eta Putxerri (1.299 metro) mendiak igoko dira. Autobusa Santa Klaratik 08:00etan abiatuko da eta bazkideek 6 euro eta ez direnek, 8 euro ordaindu beharko dute. Izena, 943 65 27 89 telefono zenbakian edo [alpinouzturre@hotmail.com](mailto:alpinouzturre@hotmail.com) helbidean eman beharko da.

### Bisiguaren Festan izen ematea bihurtik aurrera

**TOLOSA** » Tolosa oriotar estiloz jantzen duen festa maiatzaren 29 eta 30ean izango da. Txinparta Elkarteak antolatuta, Euskadiko hiru parrillero onenetakoek egindako bisigua dastatzeko aukera izango da. Izena, TolosaldeaTour-en bidez emango da: [tour@tolosaldea.net](http://tour@tolosaldea.net) helbidean edo 943 69 74 13 telefonora deituz.

### Bihar Saharar presoekin bat egiteko elkarretaratzea

**TOLOSA** » Tolosaldea Sahararekin Elkarteak, bihar Tolosako udal-txearen aurrean 19:30ean elkarretaratzea egingo du. Martxoaren 18tik gose greban dauden 36 preso sahararrek in bat egiteko izango da. Marokok giza eskubideak errespetatu ditzala eskatzen dute, besteak beste bortxaketa, tratatuak, tortura eta osasun atentzio gabezia. Honez gain, euren familiarengandik ahalik eta gertuen egoteko eskaera egingo dute.

### Asis Sarearen hileroko otoitzaldia ostegunean

**TOLOSA** » Hilaren 29an, Asis Sarearen otoitzaldi bikura izango da Tolosako Klarisen komentuan. Helburua jendearengana irekitzea da.



Larunbatean, berastegiarekin lan handia izan zuten mendian botatako zabor guztiak biltzen. HITZA

# Herritarrek zabor pila bildu dute inguruko mendietan

**Berastegi** » Aldin Kultur Elkartearen deiak erantzun ona izan du herritarren aldetik. Udalak ere parte hartu du ekimenean.

#### ERREDAKZIOA

Beste urte batez, Aldin Kultur Elkarteak deituta, mendiak garbitzen aritu ziren berastegiarrak. Larunbatean erantzun ona izan zuen ekimenak eta berrikuntzen artean, eskolako haur batzuen laguntza izan zuten. Eskolan, uraren gaia aztertzen aritu dira eta bertan, erreka inguruak garbitzeko helburuarekin izan ziren.

Antolatzaileek adierazi dute: «zorritzarekin 2006. urtean garbitutako toki batzuetan, berriz ere, garbitzen aritu behar izan dugu. Oraindik zaborrak botatzen jarraitzen dute». Atxokorbeko kabobria eta Arkarko herri sailetako

inguruan hasi zituzten garbiketa lanak. Karobiko zuloan eta inguruetan auzolanean aritu zirenek, beste hainbat gauzen artean: plastikoetan sartuta dozena erdi bat ardi zahar erdi ustelduak, dozena pare bat arkume edo antxume, gurpilak, komun bat, belar bolak egiteko plastiko ugari... topatu zituzten.

Arrate zentralaren ondoko zaborgetan ere izan ziren. 2006. urtean garbitzen aritu baziren ere, zabor pila handitzen joan da, erreka iritsi arte.

Aurten Berastegiko Udalak arrerapauso bat eman nahi izan du eta herriko induskailuaren bitartez, azpiak atera eta organikoa ez zen guztia ateratzen saiatu ziren.

Lan guztiak bukatu gabe geratu direla jakinarazi dute: «garbiketa bukatu, lurrez estali, belar hazia bota eta hesi bat jartzea falta da». Azken lan hauek, Udalak egin beharrekoak direla argitu dute eta

«inork ez dezala izan zabor gehiago botatzeko tentaziorik» gaineratu dute.

### Zaborrak Garbigunera botatzeko deia

Aldin Kultur Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie: «laguntzaile guztiei, haurrei, zinegotziei eta batez ere, Arbideko Jabierri; aurten ere bere makinekin etengabe lagundu digulako» azpimarratu nahi izan dute.

Bestetik, gaur egun, ez dago zaborrak mendian botatzeko aitzakiarik. Tolosaldeko Mankomunitateak eta Berastegiko Udalak, edozein motatako zaborra jasotzeko moduak antolatuta dauzkate. Edukiontziberezietan edota inguru edo egun zehatz batzuetan utzi daitezke. Aldi berean, Tolosako kanposantuaren inguruan dagoen garbigunera eraman daitezke edozein altzari, etxetresna elektriko, tresna...

## Bihar 20:00etan Film Laburren VII. Zirkuitua izango da Kultur Etxean

**Tolosa** » Koldo Almandoz zuzendari donostiarra bertan izango da; bere lana ikusteaz gain argibideak emango ditu.

#### ERREDAKZIOA

Film Laburren VII. Zirkuitua dagoeneko herri ezberdinetatik pasa da. Lehengo astean Zizurkilen izan zen eta bihar, Tolosako Kultur Etxean izango da. Galtzaundi Euskara Taldeak eta Topaguneak antolatuta, Laburbira euskarazko film laburren emanaldia 20:00etan hasiko da.

Laburbira zirkuituak, euskarazko ikus-entzunezkoen urteko produkzioa ezagutarazi nahi du. Era berean, herrietako kultur eskaintza aberasteko helburua du.

### Almandoz zuzendariarekin

2009. urtean ekoiztutako lanak izango dira eskainiko dituzten bederatzik film laburrak. Film labur guztiak ikusteaz gain, Koldo Almandoz zuzendariak Kultur Etxean izango da. Saioaren ostean, donostiarrek, bere *Ahate pasa* azken lanaz argibideak emango ditu. Eta bertaratutako ikusleen eta egilearen arteko hizketa saioa sortzea da honen helburua.

Koldo Almandozen lanaz gain, Telmo Esnalen *Amona Putz*, Jose Luis Barredo eta Iñigo Garciaeren *Clark eta Boris*, Arkaitz Basterraren *Esaiok*, Iñigo Sanzen *Nora Zoaz*, Urko Manduit eta Ioseba Salaberriaren *Odisea Etxaldean* eta Estibaliz Arizek, Itziar Faidok, Janire Fernandezek, Vanessa Martinek, Gorka Montielek eta Malen Ulaziak osatutako taldeak egin duen, *Zorion hutsa* izango dira.

Bederatzik laburmetraien iraupena ordu eta hamar minutu ingurukoa da eta doan izango da.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta  
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan  
DOAN agertuko da

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle**

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • [tolosaldean@tolosaldecohitzza.info](mailto:tolosaldean@tolosaldecohitzza.info) / Tel.: 943-65 56 95



**FUNERARIA VASCONGADA**  
EHORZKETAK  
SPUTNIK DORREEN ONDOAN  
ZURE BETIKO EHORZTETXEA  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com) Tfno. 943 67 00 40  
ZERBITZU IRAUNKORRA  
902 402 900

# Herri akusazioak ez du asmorik helegitea jartzeko 'Egunkaria auzian'

**Tolosa** » Dignidad y Justicia eta AVTK ez dute Auzitegi Gorenera joko, Euskadi Irratiak eta 'El Mundo'k diotenez.

## ERREDAKZIOA

Dignidad y Justicia elkarteak ez dauka *Egunkaria*-ren absoluzioaren kontrako helegitea aurkezteko asmorik, Euskadi Irratiari jakinarazi dioenez. AVT da auziko beste herri akusazioa, eta *El Mundo* egunkariak atzo plazaratu zuen biek ez dutela helegiterik aurkeztuko. Hori baieztatuko balitz «al-biste ona» litzatekeela adierazi zuen Iñaki Uria *Egunkaria*-ko kontseilari ordezkarri ohi eta auzitepetu izanak: «Epaia behin betiko bihurtuko litzateke eta ez genuke Gorenaren zain egon beharko».

Espainiako Auzitegi Nazionalak apirilaren 12an eman zuen absoluzio epaia. *Euskaldunon Egunkaria* ixteko nahiko oinarriak ez zegoela ebazti zuen. Joan Mari Torrealdai, Iñaki Uria, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga auzitepetuek ETArekin «inolako harremanik»

ez dutela idatzi du *Egunkaria* auziko epaian, eta absolbitu egin ditu. Akusazioek lana gaizki egin dutela zioen Javier Gomez Bermudezek, Manuela Fernandez Prado eta Ramon Saez Valcarcel magistratuek osatutako epaimahaiak: «Atzekoz aurrera egin dute indukzio prozesua. Lehenbizi, erabaki da zein den ondorioa (...); gero seinale, zantzu eta aztarna bila hasi dira; eta azkenik arbiuatu egin da ondorioarekin bat ez datorren ezein esplikazio».

Helegitea aurkezteko AVTK eta Dignidad y Justicia «zaila» daukatela uste du Uriak, epaia «sendoa» delako eta Espainiako Auzitegi Gorenean argudio horien kontra egitea gaitza delako. AVTK eta Dignidad y Justicia berritako «egurrak» jasotzeko eta, gainera, epaia-berriaren kostuak beren gain hartzeko arriskua ikusten dutelakoan dago, eta horregatik egin dezaketela atzera.

*El Mundo*-ren arabera, atzo zen helegitea aurkezteko azken eguna. Uriak, berriz, beren abokatuek esandakoan oinarrituta, uste du epe hori zabalagoa dela, eta zuhurtzia eskatu du, eta epea amaitu arte helegitea sartzeko aukera baztertzetik ez dagoela adierazi du.



Euskalduna Jauregian euskal gizarteari eskerrak emateko egin zuten ekitaldiaren une bat. JON HERNAEZ/ARGAZKI PRESS

## 'Euskaldunon Egunkariaren' esker ona euskal gizarteari

**Tolosa** » Euskalduna Jauregian ekitaldia egin zuten bost auzitepetuei eta proiektuari emandako laguntza eskertzeko.

## ERREDAKZIOA

Joan Mari Torrealdai euskal gizarteari eskerrak eman zizkion herenegun, Bilboko Euskalduna Jauregian, *Euskaldunon Egunkaria* osatzen zuten denen izenean.

Izan ere, bost auzitepetuen eta proiektu hartan parte hartu zuten guztien izenean eskerrak emateko ekitaldia egin zuten, musikariak, dantzariak eta bertsolariak lagun hartuta.

Besteak beste, Jon Maia dantzaria, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña eta Xebastian Lizaso bertsolariak, Maddalen Arzallus eta Miren Amuriza bertsolariak gitarrak lagunduta, Gose eta Katamalo taldeak, Ubedanaia, Aitor Gorosabel Su Ta Garreko abeslaria eta

Juan Mari Beltran aritu ziren oholatza gainean.

*Egunkaria*-ren Babes taldekoen izenean Xabier Mendigurenek hartu zuen hitza, eta herri batzordeek ere izan dute euren tokia, bai Euskal Herrikoek, bai Espainiakoek eta Kataluniakoek ere.

Espainiako Auzitegi Nazionalak apirilaren 12an eman zuen absoluzioa. 2003ko otsailaren 20an itxi zuen *Euskaldunon Egunkaria* Guardia Zibila, auzitegi haren aginduz.

# Gastronomiaz gozatzeko eta ikasteko jardunaldiak ekainean

**Tolosa** » 'Illargi Coupage, sormenezko fusioa gastronomian' izena jarri diote Zerkausion inguruko ekimenari.

## ERREDAKZIOA

«Esperientzia gastronomiko berri bat» antolatu dute Tolosan, Zerkausion, ekainaren 7tik 13ra bitartean. *Illargi Coupage, sormenezko fusioa gastronomian* deitu diote jardunaldiei eta bertan sukaldaritzaren inguruan aisia, plazerra eta ezagutza uztartu nahi dituzte. «Ohiko instrumentu eta teknikekin prestatutako sukaldaritzak, baina sormen handiko ukituarekin non arteak eta sukaldeko azken apustuek lekua izango duten», azaldu dute antolatzaileek. Ekimena «menu original bat dastatzeko»

ra bakarrik ez, gozatzeko duen bitartean ikasi nahi duen» orori zuzenduta dago.

Jardunaldi horien baitan ardo dastatzeko inguruko «egitarau interesgarria» izan da, Errioxa, Nafarroa, Dueroko Erribera eta Alemaniako ardoekin. Janariari dagokionez, hainbat bazkari eta afari antolatu dira, eta tartean hitzaldi didaktikoak izango dira elikagai bakoitzaren ezaugarriak eta prestatzeko moduari buruz. Besteak beste, kabierra eta berarekin batera vodka nola hartu daitekeen, ostrak, afari gozoak, afari turkiarra, foie-ko parrillada hotzak, bakailaoa, txerrikumea, munduko haragi ezberdinak inpala, zebra eta ostruka bezalakoak, ohiko postreak prestatzeko hainbat modu, eta orain arte ezagutzen diren aspektu eta zaporeekin hautsiko duten elikagaiak osatutako afaria.



# Eskola Liburuaren Egunarekin

**ARESO** » Liburuaren Nazioarteko Egunaren harira, Aresoko eskolak ekitaldia burutu zuen. Lehenbizi, bost gurasok bost hizkuntza ezberdinetan irakurri zizkieten haurrei Afrikako bost istorio, ingelesez, gaztelaz, frantsesez, alemanez eta euskaraz. Bost kanta ezberdin entzun ziren eta bakoitzak bere istorioa zuen. Ondoren, Lehen Hezkuntzakoek beraien asmatutako ipuin bat irakurri eta antzestu zuten. Bigarren Hezkuntzakoak gauza bera egin zuten beraien asmatu eta marraztutako istorioarekin eta Haur Hezkuntzakoek beraien asmatutako ipuin bat irakurri zuten. Ekitaldiarekin amaitzeko, irakasleek *Bigantxaren lapurrak* ipuina irakurri zuten. Ondoren, Guraso Elkarteak eskainita, pastatxo batzuk jan eta zerbait edateko aukera izan zuten ekitaldi joan zirenek. Bestalde, Guraso Elkarteak haurrei liburuak oparitu zizkien. HITZA



20°  
12°

GOIZA HODEI ALTUAK  
ARRATSALDIA  
BEROENA 24°  
HOTZENA 13°

**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.L.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefona:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.  
**Webgunea:** www.tolosaldeko-hitza.info

**Zuzendariordea:** Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitatea:** 661 678 818 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.  
**Leitza:** 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak**  
**S.L.ko kideak:**

BERTAKO  
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta  
Leitzaaldeko beste 77 eragile

**Hitza-k Bai**  
**Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako  
Foru  
Aldundia

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## A Agenda

### Hitzaaldia

■ **Tolosa.** Euskal Herria Sozialistak antolatutako Aste Iraultzailearen baitan *Preobrazhenskiren Anarkismoa eta Komunismoa* liburuaren aurkezpena euskaraz 19:30ean Engels Ateneoan (Errementari kalea, 8).

### Antzerkia

■ **Zizurkil.** Pikor Teatrok *Sarebigian* antzezlana eskainiko du DBH 2, 3 eta 4ko ikasleentzat, Gurea aretoan 11:00etan, Zizurkilgo VIII. Antzerki Astearen baitan.

### » IRRATIA

**Txolarre Irratia**  
(FM 107.5 eta 101.2)

**11:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia.

**12:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Magazina.

**13:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Lehiaketa eta disko eskainiak.

**13:30.** Info 7: Eguerdiko albistegi nagusia.

**14:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia.

**16:00.** Arrosa: Celosamente Gordea (HBI).

**17:00.** Kabitik Plazara.

**18:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Magazina (errepikapena).

**19:00.** Tolosaldeko Ahotsa: Albistegia (errepikapena).

**20:00.** Info 7: Iluntzeko albistegi nagusia.

**21:00.** Mintzatzen.

### » GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74


■ **Arribe.** Garmendia, A. Kale Nagusia, 112.

■ **Irurtzun.** Gastearena, M. Amaya kalea, 43. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Bihar amaituko da XI. HITZA Argazki Lehiaketa parte hartzeko aukera. Igandean, maiatzak 2, argitaratuko ditugu zortzi argazki finalistak eta maiatzaren 9an, aldiz, hiru argazki irabazleak.

# Inguruan edo pixka bat urrunago



**TOLOSA** ● Gema eta Nekane Zubeldiaren iritzi ez da urrutira joan behar «toki zoragarriez» gozatzeko. Bi argazki hauek Adarra bidean ateratu zituzten. Lehen argazkia Gemarena da eta bigarrena, aldiz, Nekane ateratakoa. GEMA ETA NEKANE ZUBELDIA



**TOLOSA** ● Maritxu Astiasaranek Almuñecar (Granada) herrian ostiral santuan La Dolorosa prozesioari ateratako argazkia bidali du. 160 pertsona daude La Dolorosa amabirjina eramaten. MARITXU ASTIASARAN



bidali  
opor  
hauetako  
argazkiak!

NORA  
BIDALI?

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info helbide elektronikora edo HITZAren Tolosako edo Leitzaiko egoitzetara **Apirilaren 6tik 28ra**

**HITZA** aste santuko argazki lehiaketa



1. Saria

lande...

3. Saria



2. Saria

skutik,